

TxiK!tto

2015eko martxoan

151 zbk.



ttipi-ttapa
KORRIKA

Txis teak



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Maider Aranberri,
Ana Aizpurua eta Eibarko
ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Maider Aranberri, Ainhoa
Luz eta Ana Aizpurua.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena

Ume bat arduratuta heltzen da
etxera eta amari esaten dio:

- Ama! Ama! Eskolan oso despistatua naizela
esaten dute .
 - Ez egin kasurik eta egon lasai! Baina, barkatu, ni
ez naiz zure ama, zure auzokoa naiz
- DIOGO VALE, EIDER MADRIGAL, AMADOU MBENGUE



Banpiro batek, ahotik odola
dariola ikusi du bere adiskideak:

- Aizu, baina non lortu duzu halako odol pila?
 - Zatoz nirekin eta ikusiko duzu!
- Kaleko horma bat erakusten dio esanez:
- Ikusi al duzu horma hori?
 - Bai!- erantzuten dio adiskideak
 - Ba... nik, ez dut ikusi

JUAN DAVID OCHOA, VERONICA FEIJOO



Hortzak garbitzeko
eskuilak esaten du:

- Batzuetan lanik txarrena dudala
uste dut...
- Eta komuneko paperak erantzuten dio:
- Bai??... ziur zaude??

SALMA FERNANDEZ,
GENESIS NICOLL MURILLO



KULTURA SAILA



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Egun batean Jaimitoren amak esan zion Jaimitori:

– Jaimito mesedez joan saltxitxak eroatera.

Eta eroatera joan zen. Baina itxita zegoenez eta poltsikoan artazi batzuk zeuzkanez pitilina moztu zuen.

Gero etxera joan zen eta bere amak pitilina sukaldatu zuen.

Amari asko gustatu zitzaionez esan zion:

– Joan beste saltxitxa bat eroatera.

Eta Jaimitok erantzun zion:

– Itxaron nire pitilina handitu arte.

NAGORE OCHOA, DIYAE AHDADOU.



Zer esaten du ET-k limoia jaterakoan:

– “Mikaaaatzaaaaa”

NAROA GOMEZ, ACHRAF ABIDA



**JAJAJA
JAJAJA**

Bi moja motorrean zihoazen eta inork pasa ezin zuen kurba bat pasatzea lortu zuten.

Beste aldetik Ertzain batek esan zien:

– Nola lortu duzue kurba hau pasatzea?

–Jainkoa gurekin dagoelako!! – erantzun zuen moja batek.

– Orduan isuna daukazue motor batean hiru pertsona joateagatik!!!

UNAI CASAREJOS, HASSNAIN ALI



Denborapasak

Aurkitu desberdintasunak



Leire Gomez

Mezua deszifratu

A X E ... I ☼ H ⚡ P ∞
 B - F ♫ J / N ⊙ Q ♀
 C + G ◇ K ☐ Ñ ⚡ R ☸
 D ♥ H ♦ L ☺ O ⚡ S ⊙
 T ☆ U ° V ☺ W 🐎 X O
 Y ° Z ♥

... ° ⊙ ☐ ... ☼ X ♥
 - ☼ ♥ ☼ ⊙ X ♦ ☼
 ♥ ° ☆

Jule Bastida

Sudokua

				6	4
3	9	1	4	6	5
		2		9	
9	7	5	3		
8			9	4	
			2	7	3
5		7			1
	3		1	6	2
2	4	3	5	7	

Irati Llarena

Lehiaketa



AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **GARAZI KORTABARRIA** izan da. Argazkian duzue saria jasotzen. Zorionak!

BILATU ETA MARGOTU ESKUMAN AZALTZEN DIREN MARRAZKIAK



**BIDALI ERANTZUNA APIRILAK 30 BAINO LEHEN.
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA. Urkizu 11. Eibar.**


Izen-abizena

AdinaTel.....

Denborapasak

Labirintoa

Lagundu azarotari gazta aurkitzen.



Maialen Blanco

Hizki-zopa

Z	S	Z	P	E	A	I	K	E	A	B	T	ZALDIA
R	A	R	D	I	A	V	A	V	R	E	X	ARDIA
S	V	L	K	V	L	T	T	Z	T	H	A	AHATEA
E	V	S	D	K	A	L	A	O	Z	I	K	DELFINA
A	S	G	T	I	E	A	G	G	A	A	V	BEHIA
G	E	A	E	R	A	Z	O	S	R	S	R	TXAKURRA
O	M	T	E	A	T	T	R	T	T	Z	R	KATUA
V	N	N	N	R	Z	T	R	A	R	O	A	ARZA
E	K	A	T	V	A	A	I	L	Z	O	V	SUGIA
I	V	V	N	T	X	I	A	H	O	E	E	UNTZIA
J	A	A	H	A	T	E	A	P	G	A	R	KATASORIA
D	E	L	F	I	N	A	O	S	T	O	A	

Ainhoa Bizkarra

Kaixo Arrateko **Andra Mari** Ikastetxetik! Hemen gaude, aratosteak amaitu eta lanean buru-belarri. Zein ondo pasatu genuen guztiok! Mila-mila esker gurasoei eta jangelako zaintzaileei emandako laguntzagatik. Martxoaren 9an 3. ziklokoak IKAS2DEAK programaren barruan Maider Yabar akrobataren bisita izan zuten.

2. ziklokoak martxoan irteera pedagogikoa egin zuten Deba Behea ezagutzeko.

HH-ko 4 eta 5 urtekoak martxoaren 26an Coliseora joango ziren PIM&POM filma ikustera.

Martxoaren 27an, LH-koek euskal filma bat ikusiko dute eskolako aretoan.

Urkizu ikastetxeko lehenengo eta bigarren mailako ikasleak Oñatiko Natur Eskolara joan ziren martxoaren 17an. 23an Korrika Txikian hartu genuen parte eta 26an, Haur Hezkuntzako umeak, "Pim eta Pom" pelikula ikustera joan ziren Coliseo Antzokira.

Martxoaren 8an, Emakume Langilearen eguna zela-eta, lantxo batzuk egin genituen **J.A.Mogel ikastolan**.

Aurten ere liburutegi orduan Emakumearen egoera ipuin eta bideo bitartez hobeto ulertu dugu.

Material horiek ikusi ondoren, ikasleek etxeko lanetan zertan hobetu dezaketen aipatu zuten eta hormairudi baten agertu zuten. Batez ere, etxeko lanak orekatuagoak egon daitezzen nahi dugulako.

Horrela, ikastola guztiko neska-mutilak euren lantxoa egin dute emakumeen eskubideak hobetzeko. Argazkian ikus itzazue 2. mailako batzuk hormairudia osatzeko eskulantxoa egiten.



Azken urteetan aratosteak ikastetxean ospatu ondoren, aurtengoan **Amaña** Ikastetxeko ikasle, irakasle eta gurasoak herriko desfilean parte hartu dugu. Lehen hezkuntzako ikasleak hippiz moztarotatu ginen eta haur hezkuntzakoak ipuinetako pertsonaiez. Dena oso ondo atera zen, giroa ezin hobea izan zen eta asko gozatu genuen. Hurrengo urtean ere bertan egotea espero dugu.

Aspaldiko! Hemen gaude berriro **La Salle** Ikastetxean egin ditugun ekintza guztiak kontatzeko prest. LH-ko ikasle-irakasleok kontsumobideko tailerak egin genituen eta primeran pasatu genuen. Pilla bat gauza berri ikasteko aukera izan genuen!

Martxoaren 9tik 13ra Proye Proega astea ospatu genuen, elkartzun jaia eginez. Urtero bezala, pintxo solidarioak izan genituen eta aurten, Eibarko kamiseta bat zozketatu genuen!

23tik 27ra, euskal astea ospatu dugu eta sorprezaz beterik gaude! Besteak beste, 3. ziklokoak Txuri Urdinera joan ziren patinatzerara. Martxoaren 6an, antzezpen bat ikustera joan ziren Arrasateko Amaia antzokira.



korrika, iruditan





ETXeko ARTISTA

Fruta eta barazki margolariak

Oraingoan ere material errazekin eskulan polita egiteko aukera eskaini nahi dizuegu. Frutak, barazkiak eta margoak, besterik ez duzue beharko.

Materiala:

- Fruta: sagarrak, madariak, laranja, platanoak, limoiak...
- Barazkiak: brokolia, azalorea, piperra, patatak, azenarioa, arto osoa, txanpiñoiak...
- Aiztoa
- Mozteko taula
- Tenperak
- Erretilua edo bandeja
- Papera

Ti-ta!

Makiltxoekin jolasean

Behar duzuen gauza bakarra izozki-makilak, velcro zatitxoak eta margoak dira. Margotu makiltxoak nahi duzuen kolorearekin eta itsasi velcro zatiak, leunak eta zimurrak, elkarri itsasi ahal izateko. Nahi duzuen formak egin ditzakezue, geometrikoak, zerbakiak...



Pausoak:

- 1.- Garbitu eta ondo sikatu fruta eta barazkiak.
- 2.- Moztu nahi duzuen moduan, baina hona hemen ideia batzuk: fruta erditik moztu, brokolia eta azaloreari aterazkiozue kukuluak, txanpiñoiari forma ezberdinak eman (izarrak, bihotzak...)...
- 3.- Busti frutak eta barazkiak margoan eta irudimenaz lagundurik, marrazki politak egingo dituzue.



etxeko SUKALDARIA

Haragizko burritoak



OSAGIAK

- ✓ Tipula
- ✓ Haragi txikitua
- ✓ Tomate-saltsa
- ✓ Cheddar-gazta
- ✓ Mostaza
- ✓ Tomate-xerrak
- ✓ Arto-opilak



PAUSOAK

- 1.- Tipula txikitua oliotan egin. Ia eginda dagoenean nahastu haragi txikitua eta utzi.
- 2.- Bi tomate-saltsa goilarakada gehitu eta utzi pare bat minutu.
- 3.- Arto-opilak mahai gainean zabaldu. Opil bakoitzean gazta, haragiaren nahasketa eta mostaza pixka bat bota.

Ondoren, tomate-xerrak gehitu eta itxi opila.

- 4.- Labea berotu 180 gradutan eta burritoak sartu bertan 3-5 minutuz, gazta urtu arte.

Guk osagai hauek proposatzen dizkizuegu baina nahi dituzuenak erabil ditzakezue.



Patatak txokolatetan

OSAGIAK


- ✓ Txip erako patatak
- ✓ Txokolatea

PAUSOAK

- 1.- Urtu txokolatea mikrohuin-labean, kontu handiz.
- 2.- Sartu patatak txokolatean, astindu soberako txokolatea kentzeko eta jarri itzazu paper baten gainean. Gatz apur bat bota gainera eta listo!



AITORREN ISTRIPIUA



Gorka Bordaes
4. maila
2014-15

NIK GOMENDATZEN DIZUET EZ JOATEA OFIZIKLETA REKIN ERREPIDEK ETA ASKOZ GUTXIAKO ZERKATZEA, BESTELA AUTO GATEK ARRAPATZEKO ARRISKUA DAGO.



horoskopoa

ARIES

Datozen egunotan zoriotsu sentituko zara. Udaberrian gaudelako edo ez dakit zergatik baina pozik egongo zara. Zorteko zenbakia 3.

TAURUS

Ezin duzu ezkutatu, maiteminduta zaude!! Lasai, zure sekretua salbu dago nerekin. Dena dela, barruan gordetzeak ez dizu onik egingo, lagunena bati kontatuz, lasaiago sentituko zara.

GEMINIS

Udaberria iritsi dela eta udako erropa janzea nahi? Ahaztu egin duzu non bizi zaren, ala? Pazientzia izan beharko duzu, badakizu Euskal Herria nolakoa den.

CANCER

Datozen egunotan 2 zenbakiak zortea ekarriko dizu eta zure kolorea urdina izango da. Animalia baten aukeratzekotan aukeratu katua.

LEO

Abestea ondo dago, baina bajatu bolumena pixka bat, aldamenekoak zoratuta dituzu-eta! Pentsatu duzu inoiz telebista saio batera aurkeztea?

VIRGO

Noizean behin guztioi sartzen zaigu alperraldia, baina zureak asko irauten du! Konturatu orduko ikasturtea amaitu zaigu, eta beraz, espabilatu!

LIBRA

Aste Santuko oporrak ate joka ditugu, lasai. Orain hartuko duzu merezitako atsedena, baina ez zaitetz larregi erlaxatu, eh? Zorteko zenbakia 8.

SCORPIUS

Zuk errespetua eskatzen duzu, baina gauza bera egin beharko zenuke zuk ere besteekin. Lagunak zaindu egin behar direla ez ahaztu inoiz.

SAGITARIUS

Irakurtzea gustatzen zaizu eta hori igerri egingen da. Jarraitu horrela. Joan liburutegira eta bertan aurkituko duzu eskaintza polita.

CAPRICORNIUS


Etzekoak pozik izango dituzu egunotan: ohea egin, gela txukundu, mahaia jarri eta kendu... Baina ez dadila egun batzuetako kontua bakarrik izan, eh?

ACUARIUS

Katarroa noiz joango zaizun? Badakit aspertuta zaudela baina izan pazientzia. Eguzkiak indarra hartzen duenean sendatuko zaizu.

PISCIS

9 zenbakiak zortea ekarriko dizu, zure animalia zaldia izango da eta kolorea berdea. Litxarrerria larregi ez jan, tripako minez egon nahi ez baduzu!




ZUBIBERAKO ZUBIA

Zubiberako zubizaina zakarra zen zubia pasatu nahi zuten guztiekin. Txoriak, untxiak, sugandilak edo jendea izan, zubizainari berdin zitzaion.




PAULAREN SEIGARREN ATZAMARRA

Badakizu zenbat hatz dituen Paulak esku batean? Bat, bi, hiru, lau, bost... eta sei! Sei hatza, bai, eta seigarren atzamar horrek ahalmen bereziak ematen dizkio, besteek pentsatu baina esaten ez dituzten gauzei igartzeko.



PIKE ETA PITITO

Potolera eta Berriaingo Goienetxea baserria ardatzat duen kontakizun goxoa dugu Pike eta Pitito. Pike eta Pititoren arteko harreman bereziak kolore biziz tindatuko ditu biok elkarrekin izandako bizipenak, nahiz eta abentura handia Pititok bakarrik egin behar...



BOGA, TXAKUR HEGALARIA

Boga txakurra ez da nolanahekoa, ez horixe!! Azkarra da oso. Bihurria da. Badaki margotzen. Badaki antzezten. Eta, gainera, txoriek bezala hegan egin nahi du!!



BELDURRAREN GAZTELUA, "THULHCEN ESKUA"

Ez dago inor Jason anaiak baino ausartagorik, apustu latza egin duelako: gau bat emango dute hiriaren kanpoaldean dagoen etxe abandonatuan. Etxe barruan, kristalezko estalki baten azpian esku momifikatu bat aurkitu dute, azazkal beltz luzeetako...



NUR ETA DORTOKEN UHARTEA

Oraingo emanaldi honetan Nur eta lagunak, Yi-Yi, Yidan, Hidehiro eta Ander Txina hegoaldeko Hainan uhartera joango zaizkigu. Han, dortoken ospitalea ezagutuko dugu eta abentura berri zirrargarriak biziko ditugu itsas-izarren, marrazoen, izurdeen, dortoken eta koloretako arrainen artean.

bitxikeriak



Sagarren haziek zianuroa dute. 40 edo 50 jaten baditugu hil egin gaitzke!



BAI! **EZ!**

Bulgariarrek "bai" burua alde batetik bestera mugitzen esaten dute, eta "ez" goitik behera mugitzen.



Thomas Alva Edison bonbila elektrikoaren asmatzaileak beldurra zion iluntasunari.



Txinpantzeak, orangutanak, izurdeak, elefanteak eta ... gizakiak dira ispilu aurrean beren burua ezagutzen duten bakarrak.



Lehenengo palmondoak ipar-poloan hazi ziren.



Eltxoek hortzak dituzte, 47 hortz.




Arrautza bat bi telefono mugikorren artean jartzen badugu, sukaldatu egingo da 62 minututan.

✓ Bangladesh-en 15 urteko umeak gartzelara joan daitezke azken azterketetan tranpa egiteagatik.



✓ Zelai metro karratu batek pertsona batentzat urtebeterako adina oxigeno sortzen du.



Jaiotzen garenetik gure begiak neurri berekoak dira bizitza osoan.



Gorputzeko giharrik indartsuena mihia da.

✓ Izurdeek begi bat itxita egiten dute lo.



✓ Hartz zuriak ezkertiak dira.



✓ Eguzkiak argia emateari utziko balio, 8 minutu beharko genituzke horretaz ohartzeko.

Dragoiaren kondaira

Egun batean, Xabi, Iker, Ana eta Jone izeneko neska-mutilak kondairen liburuak bilatzen zeudela, bat-batean Ikerrek bat aurkitu zuen.

Liburu horretan Dragoi baten kondaira kontatzen zen; inork ez zuen sinesten, baina Ikerrek bai. Astebete pasatu zen eta telebistan agertu zen kondaira, esan zuten egia zela. Dragoi hori oraindik bizirik zegoela herri txiki batean. Herria Mondragon deitzen zen.

Lau lagunak, Mondragonera abiatu ziren eta hotel batera joan ziren gaua pasatzera. Jende gutxi bizi zen herrian, astean behin, Dragoia, pertsona baten bila joaten zelako, jateko. Hurrengo egunean, lagunak kanpora irten ziren paseatzera. Ordu erdia pasa ondoren Dragoia etorri zen eta Ana harrapatu zuen. Bere gordelekura eramanean jateko. Beste hirurak prestatu ziren eta Dragoiaren gordelekura joan ziren. Tranpaz betea zegoen, hasi ziren pasatzen eta Xabik mina hartu zuen. Han geratu zen eta beste biek aurrera jarraitu zuten. Tranpa guztiak pasatu zituzten. Eta han ikusi zuten Dragoia eta Ana borrokan. Dragoiak Ikerri min eman zion eta Jonek menderatu egin zuen.



Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...

Azkenean Ana salbatu eta ospitalera joan ziren, zauriak sendatzera. Hurrengo egunean aberatsak bihurtu ziren. Sendatu eta etxera joan ziren.

Rameez Ansar

ERRALDOITXOA

Nafarroa Beherea

